

Donostiarren %40 Udal Liburutegien Sareko partaide aktiboa da

Literatura Liburutegien eguna dela-eta hiriko Udal liburutegien Sareko datuak aurkeztu ditu Donostia Kulturak.

Ion Lopez

Donostiako biztanleen %40 Udal Liburutegien Sareko kide aktiboa da –mailegu zerbitzua gutxienez behin erabili dutenak–. Horrela azaltzen da Donostia Kulturak Udal Liburutegi Sareari buruz kaleratutako txostenean. Ramon Etxezarreta kultura ordezkariak azaldu zuenez, Donostiako Udal Liburutegien Sarea EAEko beste hiriburuekin alderatuta, hirian askoz ere hedatuagoa dago. Donostian 40,06 metro karratu liburutegi publiko eskaintzen dira 1.000 biztanleko. Liburutegien nazioarteko federazioak 42 metro karratu gomendatzen ditu, eta hirian, Koldo Mitxelenaekin lortzen da kopuru horretara iristea.

Udal Liburutegien Sarean 273.337 dokumentu dituzte, 1,49 dokumentu biztanleko. EAEko batez bestekoa 1,1ekoa da.

Hiriak dituen 183.113 biztanleetatik, 83.258 daude liburutegi en sarean izena emanda. Bazkide guztien artean %5 beste udalerrri batzuetako bizilagunak dira. 938.436 bisita izan dituzte liburutegi ek, hau da, 3.139 bisita eguneko.

Internet eta teknologia berriak

Teknologia berriak gero eta hedatuagoak daude Udal Liburutegien Sarean, erabiltzaileek 251 ordenagailu dituzte erabilgarri. Mila biztanleko 1,22 ordenagailu. Liburutegi guztietan Interneterako sarrera ere bermatuta dago.

Jaurlaritzaren politikari kritika

Ramon Etxezarretak kritikatu egin zuen Eusko Jaurlaritzak liburutegien arloan eskaintzen duen zerbitzua. Apirilean ublikatzen den euskarazko liburu baten 300 ale erosten baditu Jaurlaritzak, guk ez dugu hoietako ale bat jasotzen martxo arte. Gure irakurleek produktu horretan interesa dutela pentsatzen dugunez, gure kabuz erosten ditugu eta gure liburutegietan jartzen ditugu.

“Duela 25 urte du Eusko Jaurlaritzak kulturaren eskuduntza, galde ezazue zer egin den liburutegien inguruan” gaineratu zuen udal ordezkariak.